

IRAUPEN
LUZEKO ZAINKETAK
PERTSONALIZATZEKO
JARDUNBIDE EGOKIEN
AINTZATESPENAK



AIPAMEN BEREZIA
ZUREKIN BATERA; MEATZALDEAN LAGUNTZA
SAREAK ERAIKITZEN

**BIZIGURA EGUNEKO ZENTROA. AZPIEGITURAK SA
ERAKUNDE KUDEATZAILEA: BABESTEN TALDEA**

C ARDATZA: HARREMAN ETA KOMUNITATE IKUSPEGIA

1. SARRERA: BIZIGURA EGUNEKO ZENTROA - ETXETIC EREDUA

Babesten Taldea, EtxeTIC Bizigura zerbitzua kudeatzeko ardura dugun erakundea gara. Babesten erakundean ulertzen dugu Bizkaiko Aldundiak sustatutako EtxeTIC zerbitzu integralaren helburu nagusia dela **etxeko zaintza lanen ekosistemak** mantentzeko eta indartzeko beharrezkoak diren laguntzak eskaintzea, pertsonak beren etxean eta erreferentziazko komunitatean egoteko duten eskubidea bermatzeko. Bertan, bi zerbitzu bereizi baina osagarri bizi dira elkarrekin: mendekotasun egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonen zuzendutako Eguneko Zentroa eta EJLZ, etxean jarraitzeko laguntza zerbitzua, beren etxean zainduak diren pertsonen eta zaintzen dituztenei zuzendua.

Gaur egun, Eguneko Zentroak 32 pertsona artatzen ditu, eta EGLZren bidez 480 pertsonaren beharrei erantzuten zaie. Bere eragin eremuak Abanto-Zierbena, Muskiz, Trapagaran, Zierbena eta Ortuella udalerriak hartzen ditu, Meatzaldea eskualdearen barruan.

ACP metodologiari jarraituz, **erabiltzaileak dira zerbitzuaren kudeaketaren ardatz egituratzailea**. Horien gainean antolatzen dira bai baliabideak bai esku hartzeko prozesuak. Pertsona bakoitzaren duintasunarekiko eta bizitza proiektuarekiko errespetuak mamitzen du zentroaren filosofia, pertsonak osorik garatu ahal izateko beharrezkoak diren laguntzak identifikatuz, eta laguntza horiek planifikatu, adostu eta modu individualizatuan eskainiz. Horrenbestez, alderdi pertsonalak eta erlazionalak gai soziosanitarioen maila berean kokatzen dira, zaintza integrala, koherentea eta pertsona bakoitzaren ongizatean eta gogobetetzean zentratua bermatzeko.

Arreta hori **14 profesionaleko talde konprometitu eta kualifikatu** bati esker da posible, zeinak esperientzia, dedikazioa eta hurbiltasuna uztartzen dituen, kalitatezko zerbitzua, humanoa eta pertsona bakoitzaren beharretan oinarritua eskaintzeko.

2. ABIAPUNTUA: MEATZALDEKO ZAINTZAREN EKOSISTEMA LOKALAK

EKIMENA ARDATZ TEMATIKOAREKIN IDENTIFIKATZEA

Meatzaldean **zaintzaren ekosistema lokalaren** sorrerak eredu integratu, erlazional eta hurbil baterako urratsa adierazten du, arretagunea harremanetan eta elkarlanean jarrita. Zaintzaren harremanean inplikaturako eragile guztiak barne, erreferentziazko tokiko komunitateari begiratzen dion planteamendu integratzaile eta kolaboratibo batekin. Ardatzetako bat zaintza partekatuen kultura sustatzea da, non zaintzen dugun eta geure burua zaintzen dugun.



3. JARDUNBIDE EGOKIAREN GARAPENA

EtxeTIC ereduak osagai komunitario oso indartsua du oinarrian, bere filosofia esparru komunitarioan integratutako zentro ireki baten ideiatik abiatzen baita, komunitatetik eta komunitatearentzako zerbitzuak jasotzen eta eskaintzen dituen, eta inguruneko baliabide eta kolektibo sozialekin koordinazio iraunkorra mantentzen duena, elkarrenganako irekitasun esparru batean. Abian jarri zenetik, 2024ko irailean, ereduaren dimentsio komunitario hori indartzeko apustu irmoa egin da, bere potentziala garatuz eta zabalduz, Meatzaldeko eskualderako zaintzaren ekosistema lokalaren proposamen honen bidez.

Prozesua erronka eta aukera izan da. Batetik, ahalegin handia ekarri du dagoeneko martxan diren baliabideak eta askotariko eragileak koordinatzeko; eta, bestetik, aukera baliotsua ireki du zaintza eredu hurbilago, jasangarriago eta komunitario bat eraikitzeko. Horri guztiari esker, EtxeTIC Bizigurak pertsonen ongizatea eta duintasuna jarri ditu erdigunean.

Inplementatzeko prozesua **hiru fasetan** egituratu da.

TALDE PROFESIONALAREN BARNE GOGOETA

Planteamendua hasierako hausnarketa batetik abiatzen da, **zaintzaren ekosistema lokal batek zer esan nahi zuen** eta Meatzaldeko eskualdean nola garatu genezakeen kolektiboki definitzeko, bertako lurralde berezitasunak kontuan hartuta. Geografikoki sakabanatuta dagoen hiri-landa eskualde honek nortasun kolektibo oso errotua du, eta erresistentzia, ahalegin eta elkartasun balio historikoak. Gure proiektuak ondare komunitario hori baliatu nahi du komunitatearen barruan zaintza partekatuko eredu bat eraikitzeko.

Horrela, zaintzaren ekosistema lokala lurralde bateko baliabide formalak, informalak, komunitarioak eta instituzionalak artikulatzen dituen sare bizi eta kolaboratibo gisa ulertu genuen, bertako pertsonen ongizatea bermatzeko. Horrela, “zaintzearen” barruan, loturak eta elkar laguntza sortzea sartzan dugu, pertsona guztiei –adinduei, zaintzaileei, desgaituei, osasun arazoak dituztenei edo egoera zaurgarrian daudenei– duintasunez, segurtasunez eta kide izatearen sentimenduarekin bizitzeko aukera emateko. Ekosistema gidatzen duten printzipio gidariak baieztapen hauetan oinarritzen dira:

Duintasuna eta eskubideak	Pertsona guztiak interdependenteak dira eta modu aktiboan parte hartzen dute zaintzan.
Harremanen eta tratu onaren dimentsioa	Pertsonen arteko loturaren kalitatea lehenesten dugu.
Gizarte erantzukidetasuna	Zaintza guztion ardura da: familiak, komunitatea, erakundeak eta profesionalak.
Hurbiltasuna eta partaide izatea	Lokaletik zaintzen dugu, komunitate zentzua indartzen dugu.
Berrikuntza eta ikaskuntza kolektiboa	Esperimentazioa eta etengabeko doikuntza lantzen ditugu.

LANKIDETZA ALIANTZAK ARTIKULATZEA

Hasierako fase honetan, zaintzaren ekosisteman aurrera egiteko aukerak identifikatzen ditugu. **Norekin eraiki nahi dugu?** galderatik abiatuta, zaintza eta laguntza ematen inplikaturik diharduten agenteak ezagutu genituen, eta bakoitzarekin lankidetzan aritzeko lehen **eraztunak** ezarri genituen. Lehen harremana izan genuen **zer partekatu nahi duten eta zer behar identifikatzen** dituzten jasotzeko, bai beren baliabideetatik, bai komunitatearen ikuspegitik.



ARTIKULAZIO MAILAK

NUKLEOA	Mendekotasun egoeran dauden pertsonak eta zaintzaileak	Beharrak: Esperientziak eta zuzeneko beharrak jasotzea, zerbitzuak hobetzeko eta estrategia berriak diseinatzeko. Laguntza informaleko sareak sustatzea, lotura komunitarioak indartuz. Ekosistemaren kosortzaile izatea, irtenbideak egokiak eta jasagarriak direla ziurtatzeko.
1. ERAZTUNA	Udal eta foru zerbitzuen lankidetzaren sarea	Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen arretari lotutako baliabideak, hala nola Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ), eguneko zentroak eta egoitzak. Beharrak: Baliabideen arteko koordinazioa eta lankidetzaren indartzea, gobernantza partekatua sustatuz eta, pertsona berak arreta hainbat zerbitzutatik jasotzen duenean, dauden laguntza horiek elkartzea ahalbidetzeko. Ekimen bateratuak eta loturak bultzatzea komunitatearekin.
2. ERAZTUNA	Erreferentziazko osasun zentroak eta komunitarioak	Beharrak: Zuzeneko arretarako baliabideen arteko koordinazioa hobetzea. Prebentzio kanpainak, osasunerako hezkuntza eta komunitatearen erresilientzia indartzen duten proiektuak bultzatzea.
3. ERAZTUNA	Komunitatea	Boluntarioak eta beste eragile komunitario batzuk. Beharrak: - Espazioak eta aukerak sortzea bizilagunek, boluntarioek eta beste eragile batzuek pertsonen zaintzan modu aktiboan laguntzeko, lotura familiarrik behar izan gabe. - Komunitatea sentsibilizatzea zaintza lana erantzukizun partekatua eta kolektiboa izatearen garrantziaz.

Lankidetzaren eratzunak aldi berean garatzen dira. Udalerrri eta komunitate bakoitzak bere erritmoa markatzen du eta garapen maila ezberdinak ditu, eta hori indargunetzat hartzen dugu, udalerrri bateko esperientziak beste batzuentzako ikaskuntza eta inspirazio gisa balio baitezakete, eta lurraldeen arteko atzeraelikadura baliotsua sortu.

ZAINTZAREN EKOSISTEMA LOKALEN HEDAPENA

Eraztun bakoitzeko ekimenik azpimarragarrienak aurkezten ditugu.

MAILA BAKOITZEAN EGINDAKO JARDUERAK

NUKLEOA	
- Zentroaren dinamika. Zentroko eguneroko espazioek aukera ematen dute erabiltzaileen interesak jasotzeko eta ekimen berriak sortzeko; horietako batzuk partekatutako dira.	
1. ERAZTUNA	Oinarritzko gizarte zerbitzuak, Udalarenak eta Aldundiarenak
OGZ eta ELZ koordinazioa. Lankidetzaren dinamika horri esker, EtxeTIC zerbitzua erabiltzen duen zaintzaile bat Muskizko udal ELZko langile moduan lanean hastea erraztu dugu, eta zaintza sektorean eta zaintzaileen ahalgintzaren tokiko enplegua sortzeko mugarri bat ezarri dugu.	
Beste gizarte baliabide komunitario batzuekin partekatutako jarduerak, jardura bateratuak egiteko proposamenen bidez.	
Hurbileko Zaintza Lanak Koordinatzeko Foroa. EtxeTIC Bizigura Eguneko Zentroa oinarritzko gizarte zerbitzuen eta udal baliabideen, udal ELZren, Zainduzen eta, bereziki, BFaren arteko lankidetzaren indartzeko elementu kohesionatzaile eta bideratzaile gisa eratu da, prozesu honetan guztian funtsezko pieza den Etxean Laguntzeko Atalaren bidez. Modu irekian eta eraikitzailean garatzen da, profesionalen eta erakunde kudeatzaileen arteko sintonia ona bultzatuz. Konplexutasunik handieneko kasuak lehenesten ditu, eta pixkanaka sendotuz eta irismena zabalduz doa. Proposamen hori errealitate da dagoeneko Abanto eta Muskizen kasuan, eta aurki Trapagaran eta Zierbenan.	

**MAILA BAKOITZEAN EGINDAKO JARDUERAK****2. ERAZTUNA Osasun Zentroak eta Zentro Komunitarioak**

Zaintza Elkargunea - Zaintza eta Osasun Komunitariorako Elkargunea. Udal osasun zentroekin komunikazio, lankidetzeta eta diseinu partekaturako gune iraunkor bat finkatzeko helburua planteatzen dugu, prebentzio eta osasun komunitarioko ekintzak lantzeko, pertsonen autonomia eta ongizatea zaintzera bideratuta.

Udal zentroekin lankidetzan aritzeko jarduerak. Inguruko kiroldegiekin lankidetzeta kanalak irekitzen hasi gara, erabiltzaileen ongizate eta estimulazio programetan ariketa fisikoa txertatzeko; eta ikastetxeekin, belaunaldiartekotasuna sustatzeko.

3. ERAZTUNA Komunitatea eta Gizarte Laguntzako Sareak

- EtxeTIC Bizigura boluntariotza. EtxeTIC Bizigurak boluntariotza eta elkartasun komunitarioko esperientzia bat hasi du EtxeTIC zerbitzuaren hartzaileekin, bereziki zaintzaileekin, Eguneko Zentroaren erabiltzaileei hondartzarako irteeretan, herriko jaietan eta abarretan laguntzeko, lotura sozialak, errotze kulturala eta komunitateko bizitza indartzeko. Laguntza informaleko sare hori bereziki baliotsua da, kontuan hartuta boluntario horietako askok senideak zaintzeari lotutako gainkarga dutela, eta esperientzia horretan "arnasa" hartzeko aukera aurkitzen dutela. Zaintza ongizate eta gogobetetze iturri ere izan daitekeela erakusten du, parte hartze komunitariotik eta elkarri laguntzetik gauzatzen denean. Aipamen berezia merezi du uda honetako boluntariotza esperientziak. Mendekotasun egoeran dauden adingabeentzako jardueren programazioarekin bat eginez, "udaleku" formatuan, aldi berean boluntario eta erabiltzaile diren pertsona talde horren lankidetzari esker, jardueren iraupena luzatu ahal izan zen.

Esperientzia horrek boluntariotza sarea sendotu eta hedatu du, eta zentroan belaunaldi desberdinen eta komunitatearen lankidetzaren erreferente bihurtu. Gaur egun, inplikazio horri jarraipena nola eman baloratzen ari dira, boluntarioak proiektu komunitario berrietan sartzeko, dagoeneko zenbait jardueratan eskaintzen duten laguntzatik harago.

- Komunitatean parte hartzea. Udalerrietako jaietan eta beste udal ekimen batzuetan parte hartzen dugu, eta nahi gabeko bakardadeari eta Adinekoen Egunari lotutako ekitaldietarako ideiak ematen eta parte hartzen dugu. Elkarte, kultur talde eta boluntarioekin etengabeko lankidetzeta sendoa mantentzen dugu, *ekosistemaren laguntzaileen mapari* esker, zeina udalerrri bakoitzean zabaltzen jarraitzen dugun. Gainera, ingurunearekiko harremana indartzen duten hezkuntza eta kultura irteerak sustatzen ditugu (museoak, espazio naturalak, ekimen solidarioak), erabiltzaileen eta tokiko komunitatearen arteko ikaskuntza partekatua eta hurbileko loturak sortzeko. Esperientzia horiek berresten dute zaintza lana zentrona mugatzen ez delako ideia, eta, aldiz, herrietako eguneroko bizitzan ehuntzen dela, harreman, afektu eta proiektu partekatuen bidez.

4. HAUTEMANDAKO ERRESISTENTZIAK

Bi erronka garrantzitsu jasotzen ditugu:

Zenbait eragileren arteko koordinazio konplexua eta mendekoa	Bilerak eta koordinazio mailakatua. Pausoz pauso aurrera egin dugu, aldizkako elkarrizketarako espazioak sortuz, non aktore bakoitzak bere ekarpena egin eta duen rola argitu dezakeen, eta horrek koordinazioa modu iraunkorrean finkatzea ahalbidetzen du. Erakundeetako eragileen eta baliabideen kudeatzaileen arteko konfiantza eraikitzea. Lorpen txiki ikusgarriekin hasi gara, erabiltzaileen ongizatearen alde modu koordinatuan lan egitearen eta konfiantza eta lankidetzeta indartzen duten esperientzia partekatuen onura zehatzak erakutsiz.
Ekimenetan aktore informalek inplikatzeko zailtasuna	Ordutegi malgutasuna eta biztanleen ekarpena publikoki aitortzea. Jarduera guztiak zabaltzeko eta komunikatzeko bideak hobetzea. Sakabanaketa geografikoa gainditzeko eta beste pertsona batzuen parte hartzea errazteko estrategiak.



5. TRANSFERIGARRITASUNA

Praktika erraz errepika daiteke, faktore hauengatik:

Metodologia irekia eta moldagarria	Prozesua erraz errepika daitezkeen faseetan egituratuta dago.
Dauden baliabideetan oinarritua	Ez du eskatzen zerbitzu berriak sortzea, baizik eta daudenak berrantolatzea, konektatzea eta balorizatzea.
Lurralde eskalagarritasuna	Ekintza marko malgua da, lurraldearen ezaugarrietara egokitzeko modukoa.
Inplikazio komunitarioa eta instituzionala	Ereduak tokiko egitura baliokideekin erreproduzitu daitezkeen gobernantza kolaboratiboa sustatzen du.

6. EMAITZAK ETA INPAKTUA

NUKLEOA. Mendekotasun egoeran dauden pertsonak eta zaintzaileak

Aurkeztutako ekimenetan parte hartzen duten erabiltzaileek gogobetetze maila handia dute (9,1 puntu, batez beste), eta adierazten dute jarduerak beren behar eta espektatibei erantzuten dietela, proposamenean eta definizioan aktiboki parte hartu dutelarik. Gainera, hobekuntza objektiboak ikusten dira zaintzaileen ongizatean eta gaitzaren mailan. Gaitzaren emozionalaren neurketak, Guberman eskalaren bidez, lagun horietatik 39tan murrizketa argia dagoela ematen du. Eragin positiboa alderdi emozionalak eta erlazionalak baloratzen dituzten itemetan ikusten da bereziki: deprimitua sentitzearen pertzepzioa (10. itema), senidea zaintzeak bere osasunean eragin negatiboa duela sentitzea (1. itema) eta zainduarekiko harremanean sortutako tentsioa (6. itema); guztiek hobekuntza nabaria erakutsi dute. Gainera, parte hartzaileek boluntariotzan ematen duten denborarekin pozik sentitzen direla nabarmendu dute, esperientzia aberasgarri eta onuragarritzat hartuta. Ondorio nagusian artean nabarmentzen dira:

Ingurunearekiko konexio handiagoa, komunitatean integratuago eta baloratuago sentitzen dira.

Aldarteak hobetzea eta parte hartzea handitzea, motibazioa eta jarduera berrietan inplikatzeko jarrera hobetzea.

Autonomia eta autoestimua indartzea, entzuten dietela eta bere zaintzaren protagonistak direla sentitzearen ondorioz.

1. ERAZTUNA. Udal eta foru baliabideekiko artikulazioa

Zaintza sektoreko udal eragile eta baliabideen arteko koordinazioa lerrokatzea eta zuzeneko harremana sortzen hasi da, parte hartzaileek adierazi digutenez, lankidetzarako gune bat finkatu delako. Ikusitako inpaktu nagusiak, BFAren eskutik datozenak:

Erabiltzailea erdigunean kokatzen duten **lankidetzak ekimenak**, zaintzaren jarraitutasuna sustatzen dutenak.

Lurraldean ekimen berritzaileak lantzea, arreta eta zaintza estrategiei buruz hausnartzeko aukera ematen duten topaguneak sortuz.

Sare lokala indartzea, eragileen eta baliabideen arteko elkar laguntza sustatuz, eta egoera konplexuetan koordinazioa bultzatuz.



2. ERAZTUNA. Baliabide sanitario eta komunitarioekiko artikulazioa

Ilido hau oraindik hasierako fasean dagoen arren, bere garapenak agerian uzten du ongizatearen konplexutasuna eta multidimentsionalitatea. Inpaktu azpimarragarrien artean daude:

Izaera prebentiboa, erabiltzaileen zaintzan osasuna eta ariketa fisikoa integratuta.

Zaintzaren ikuspegi integrala, ohitura osasungarriak, ariketa fisikoa eta bizi kalitatea sustatuz.

3. ERAZTUNA. Komunitatearekiko artikulazioa

Komunitate erantzukide eta zaintzaileagoen garapena, eta ondorioz, nabarmenki:

Erantzukidetasun handiagoa, non bizilagunek, elkarteek eta tokiko baliabideek elkarren arretan eta laguntzan aktiboki parte hartzen duten.

Zaintzaren garrantziaz kontzientziaztea, komunitateko kideen arteko elkartasuna eta lankidetzaren sustatzeko.

Kapital soziala indartzea, biztanle guztien bizi kalitatean eragin positiboa duten konfiantzazko loturak eta lankidetzaren sortuz.